

2012KO URTARRILAREN 26AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO
APARTEKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita seia.

HILABETEA: Urtarrila.

URTEA: Bi mila eta hamabi.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak eta erdi.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Apartekoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK:

- M^a Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Iñaki Saldaña Herrero
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M^a Luisa Valles Fernandez
- Leire Artola Ugalde
- Iñigo Arrese Artabe
- Encarna Arrieta Telleria
- Eva Diaz del Rio
- Alfonso Segade Gonzalez
- Ana María Crespo Blanco
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna
- Unai Baztarrika Otegi

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

1.- UDALERRIEN ELKARKETA. “Gipuzkoa eta Donostiako Aurrerzki Kutzaren Gobernu Organoen izandepenean partehartzeko ondorengo udalerrien elkarketa.

Alkate jaunak (BILDU), ondorengo proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

KUTXAk udalei ondorengo informazioa helarazi die: beste udalerrri batzuekin elkartzeko dagoen aukera jarraian Kontseilari Orokorrak izendatu ahal izateko. Izendapen hauek 2012ko apirilaren hilabeterako aurreikusita dagoen Batzar Eratzailean burutuko dira.

Horren ondorioz, Alkatetza honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. “Gipuzkoa eta Donostiako Aurrerzki Kutzaren Gobernu Organoen izandepenean partehartzeko ondorengo udalerrien elkarketa proposatzea:

Soraluze, Beasain, Lasarte, Andoain, Pasaia.

Bigarren. Erabaki honen ziurtagiria KUTXari bidaltzea, 2012ko urtarrilaren 30a baino lehen.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Josi Insausti jaunak (H1): “Gai hauek iristen direnean beti tentsioak izaten dira, baina nik aurreratu behar dut abstenitu egin behar naizela, kontutan izanik Legebiltzarretan datorren ostegunean tratatuko den emendakin bat aurkeztu dela eta emendakin horrek proposatzen duena da, prozesu hau bertan behera uztea, KUTXETAKO lege berria onartu arte. Jakin dudanez emendakin hori alderdi gehienak babesa ematen diote eta gaur hemen onartu edo ez aste-bateko bidea bakarrik izango du.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guk elkarketa hau nola egiten den ez dugu ikusten eta iruditzen zaigu eredu jakin bati jarraitzen diola. Guk KUTXA beste modu batea ikusten dugu eta beste eredu bat proposatzen dugu. Guk ez dugu aldeko bozka emango.”

Alkatea jaunak galdetu dio ea beste proposamen bat duen.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): Bai, baina proposatzeko landu egin beharko litzateke. Josik esan duena horrela da eta gu prest egongo ginateke

proposamen horretan lana egitea, hau mahai gainean utziz eta beste herri batzuen elkarketa landu.”

Alkate jaunak (BILDU): “Guk hau mantenduko dugu eta bozkatu egingo dugu, urtarrilaren 30a baino lehen udalerrien elkarteak egon ezker, esan beharra dagoelako.

Julio Herreros jaunak (PP): “No entiendo cómo en una agrupación del Oria puede incorporarse al municipio de Pasaia.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 6 (BILDU)

Aurkako botoak: 7 (EAJ, PP)

Abstentzioak: 4 (PSE-EE/PSOE, H1, ARALAR)

Horren ondorioz, Alkateak aurkeztutako proposamena ez da onartu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak hogeit gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.